



ALKATEORDEAREN PROPOSAMENA

Egun, anoetako Udala, hileta edo omenaldi zibilak egiteko erregulazio berri baten garapen prozesuan dihardu, idazkari-kontuhartzaileak garatutako etorkizuneko Ordenantza horren hasierako zirriborro bat oinarri hartuta.

Arauaren garapen prozesuan hiritarren parte hartzea bermatze aldera, eta urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Komunaren 133. artikuluaekin bat etorriz, araua eraiki aurretik, hiritarren eta arau horren eraginpeko izan daitezkeen erakundeen iritzia jasoko dituen kontsulta egin beharra dago; kontsulta horretan ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak, beraien onespeneraren behar eta aukera, arauaren xedeak eta Bestelako irtenbide erregulatzaile edo ez- erregulatzaile posibleak bezalako alorren inguruan galdetuz.

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Komunaren 39/2015 Legeak ezarri bezala, kontsulta publikoa arauaren testua idatzi aurretik gauzatzen bada, prestakuntza- lanek garapen aurreratuko maila hartzen dute. Horrenbestez, egoki da hileta edo omenaldi zibilak egiteko erregulazioa kontsulta publikora bidaltzea, etorkizuneko arau horrek eragin ditzakeen hiritar eta erakundeen iritzia ezagutze aldera, eta honela zirriborroa hiritarren interesen mesedetara moldatu aldera.

Alkateordeak honako hau helarazten dio, apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 21.1.s) artikulua xedatutakoaren arabera eskumeneko organoa den Udalbatzarrari,

PROPOSAMENA

BAKARRA.- Udal Ordenantza garatu eta egin aurretik, hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza-zirriborroaren kontsulta publikoa egin dadin.

Beharrezko informazioa biltzen duen dokumentuak hileta edo omenaldi zibilak egiteko erregulazio berriaren Memoria osatzen du, Memoria hori proposamen honetan atxikia dago I eta II eranskin gisara.

Anoetan, 2026ko uztailaren 8an.

HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ERREGULAZIO BERRIAREN MEMORIA

Aurrekariak

Espainiako Estatua ez-konfesionala eta laikoa da, eta Konstituzioaren 16.1 artikulua pertsona eta erakundeen askatasun ideologiko, erlijioso eta gurtzarako askatasuna bermatzen du, ordena publikoak legeak ezarritako moduan babestutako arauak errespetatuz mugatua. Era berean, Konstituzioaren 14. artikulua berdintasuna bermatzen duenganako diskriminaziorik gabe, eta 9.2 artikulua agintzen die erakunde publikoei herritarren askatasunaren eta berdintasunaren baldintza erreala eta eraginkorra bermatzeko beharrezko baldintzak sustatu eta ezartzeko betebeharra.

Gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen. Testuinguru honetan, erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarren kopuruak gora egin du, eta, ondorioz, gero eta eskaera handiagoa dago hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko, hildakoen ahaide eta lagunei zeremonia duina eta pertsonala eskaini ahal izateko.

Aipatu beharra dago erlijio-elkarteek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko tenpluak dituztela, eta, dena den, erlijio-izaerarik ez duten zeremoniak egiteko espazio egokirik ez dagoela udaletako esparruan. Egoera horrek desoreka bat sortzen du erlijio-zeremonietarako eta zibiletarako baliabideen eskuragarritasunaren artean, eta Anoetako Udalak gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Esparru juridikoari dagokionez, urriaren 1eko 7/1985 Lege Organikoak, Tokiko Erregimenaren Oinarrien Lege Erregulatzailerak (LBRL), 25. artikuluan aitortzen ditu Udalei dagozkien eskumenak, eta, besteak beste, hiri-plangintza, ondarearen eta instalazioen kudeaketa, eta herritarren ongizaterako jardueren antolaketa. Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (LPACAP), 133.1 artikuluan ezartzen du araubide juridikoa duten xedapen orokorrak eta planak onetsi aurretik kontsulta publiko bat egin beharra dagoela, eta kontsulta horretan ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak, onespeneraren beharra eta aukera, arauaren xedeak eta bestelako irtenbide posibleak jasoko direla.

Aipatutako gizarte-beharrei erantzuteko asmoz, Anoetako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak eta Alkateordeak, elkarlanean, etorkizuneko ordenantzaren hasierako zirriborroa prestatu dute, eta hura garatu aurretik herritarren eta eraginpeko erakundeen iritzia biltzeko kontsulta publikoa egitea erabaki da, aipatutako 133.1 artikuluekin bat etorritik.

Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Anoetako Udalean ez dago, gaur egun, hileta edo omenaldi zibilak egiteko arautzeko arau berezirik. Honako arazo hauek konpondu nahi dira ekimen honen bidez:

- a) Espazioen eta prozeduraren arautze espezifikoaren absentzia. Ez dago udal-instalazioak zeremonia horietarako erabiltzeko arautzen dituen araurik, ez eta horrelako eskaerak tramitatzeko prozedurarik ere. Egoera honek zalantzaketa eta segurtasun juridikorik eza sortzen ditu herritarrentzat eta administrazioarentzat berarentzat.
- b) Erantzun instituzionalaren gabezia. Herritarrek, erlijio-izaerarik gabeko zeremonia bat egiteko Udalarengana jotzen dutenean, ez dago horretarako espazio edo prozedura argirik. Horrek eragiten du kasu bakoitzean ad hoc erabakitzea, eta horrek ezberdinkeria-tratamenduaren eta arbitrajotasunaren arriskua areagotzen du, ordena publikoaren eta berdintasunaren printzipioen aurka.
- c) Herritarren eskaera asetzea. Gero eta herritar gehiagok erlijio-izaerarik gabeko zeremonia duina eta pertsonala eskatzen du hildakoen ahaide eta lagunentzat, beren bizitzaren eta heriotzaren ulermena errespetatzen duena. Udalak ezin du aurretik hartutako erabakirik eman espazioa eta baldintzak argitu gabe.
- d) Material eta instalazioen kudeaketa ezegokia. Ez dago araurik zeremonian erabil daitezkeen materialak, ordutegiak, espazioen erabilera eta apainketa zehazteko, ez eta instalazioen kontserbazio egokia bermatzeko betebeharren gainean. Honek kaltea edo gatazka sortzeko arriskua dakar espazioen erabileran.
- e) Konstituzio-betebeharraren betetzea. Estatu ez-konfesional eta laiko baten esparruan, eta herritarren askatasun ideologiko eta erlijiosoak bermatzen dituen Konstituzioaren 16.1 artikuluari jarraiki, Udalak neurriak hartu behar ditu erlijio-izaerarik gabeko herritarrek ere zeremonia duina izan dezaten, eta horrela berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzeko.

Bestelako irtenbide erregulatzaile edo ez-erregulatzaile posibleak

Arazo hauek konpontzeko hainbat aukera aztertu dira:

1. Ez-arautzea (ad hoc erabakitzea). Aukera honek kasu bakoitzean Alkateak edo horren ordezkioak erabakitzea dakar, espazioa, ordutegia eta baldintzak finkatzeko, arau orokorrik gabe. Aukera hau baztertua izan da, segurtasun juridikorik ematen ez duelako eta ezberdinkeria-tratamenduaren eta arbitrajotasunaren arriskua areagotzen duelako, ezin baita bermatu kasu guztietan irizpide berak aplikatzea.

2. Arau orokor batean sartzea. Beste aukera bat tokiko espazio publikoen erabilerari buruzko arau orokor batean (espazioen erabilerako ordenantza, adibidez) gai hau arautzea izango litzateke. Aukera honek abantaila du erreformak arinago egin ahal izatea, baina, hala ere, ez da egokia, ez baitu prozedura bereziaren, dokumentazioaren, berehalakotasunaren eta zeremonien izaeraren zehaztasuna eskatzen duen tratamendua jasotzen.

3. Ordenantza autonomo espezifikoa egitea (aukeratutako aukera). Hileta edo omenaldi zibilak egiteko arautze espezifiko eta autonomia duen ordenantza bat egitea da aukeratutako irtenbidea. Irtenbide honek segurtasun juridiko handiena ematen die herritarrei eta administrazioari, prozedura, dokumentazioa, ordutegia, espazioak eta betebeharrak argi definitzen baititu. Gainera, zeremonien izaera eta berehalakotasun-baldintzak arau bereizi batean jasotzeak bere kabuz ahalbidetzen du behar diren egokitzapenak egitea, beste espazio batzuen erabilerari kalterik egin gabe.

Beraz, ordenantza autonomo espezifikoa aukeratzea justifikatzen da, bai arazoaren izaerak, bai arautzearen argitasunak eta segurtasun juridikoak eskatzen dutelako, eta bai LBRLk udal-eskumen gisa aitortzen duelako herritarren ongizatearekin lotutako jarduerak antolatzea.

Onespenaren behar eta aukera

Beharra. Ordenantzaren onespeneak beharrezkoa da hurrengo arrazoiengatik: a) Konstituzio-betebeharrari erantzuteko, askatasun ideologiko eta erlijiosoa bermatzeko eta estatu ez-konfesionalaren printzipioari jarraitzeko; b) herritarren gizarte-eskaera asetzeko, gero eta handiagoa dena; c) segurtasun juridikoa bermatzeko, zeremonien tramitazioa argitu eta ezberdinkeria-arazorik ez izateko; d) instalazioen erabilera egokia eta haien kontserbazioa bermatzeko.

Aukera. Arauaren onespena aproposa da, zenbait inguruabar direla-eta: a) LBRLren 25.1 artikulua aitortzen du Udalaren eskumena dela herritarren ongizatearekin lotutako jarduerak antolatzea eta instalazioak kudeatzea, eta horrek oinarri juridiko sendo bat ematen du; b) badira udal-instalazio egokiak (Herriko plazako estalpea eta Lasarbe aretoa) jada erabilgarri daudenak, eta, beraz, ez da beharrezkoa inbertsio handirik egitea; c) gizarte-pluralismoaren testuinguruan, Anoetako herritarrek eskaera argia egiten dute zeremonia zibiletarako; d) erreforma juridikoaren eta herritarren parte hartzearen printzipioei jarraituz, kontsulta publiko honek bide ematen du arauaren testua herritarren interesetara moldatzeko.

Ondorioz, ekimen hau bai beharrezkoa bai aproposa da, bai justifikazio juridikoetatik, bai eskaera sozialtik, bai bideragarritasun tekniko eta finantzierotik abiatuta.

Arauaren xedeak

Ordenantza honen xede nagusiak hauek dira:

- a) Hileta edo omenaldi zibilak egiteko Udalak jartzen dituen espazioen erabilera eta baimena arautzea, era argi eta zehatzean.
- b) Eskaerak tramitzatzeko prozedura zehatza ezartzea, argitu norrek, nola eta zein dokumentazioarekin aurkeztu dezakeen eskaera, eta berehalakotasun-printzipioari lotuta.
- c) Berdintasuna eta ez-diskriminazioa bermatzea zeremonia horietarako sarbidean, erroldatutako eta erroldatu gabeko pertsonen artean, eta herritarren askatasun ideologiko eta erlijiosoa errespetatzea.
- d) Espazioen erabilera egokia eta haien kontserbazioa bermatzea, materialen eta instalazioen erabilera arautuz, eta kalteak saihesteko betebeharrak ezarriz.
- e) Segurtasun juridikoa ematea herritarrei nahiz administrazioari, ezinbesteko baldintzak eta betebeharrak argi definituz, eta ez aurreikusitako kasuetarako ebazpen-mekanismoak ezarriz.
- f) Udal-organo eskudunaren (Alkatetzaren) esku jartzea baimena emateko erabakia, eta berehalakotasun-baldintzak behar duten neurrietarako ahalmena ematea, tramitazioa arindu eta zeremoniak denbora egokian egiteko.

Xede horiekin, ordenantzak espazioak, ordutegia, eskaeraren betebeharrak, tramitazioa eta zeremoniaren baldintza orokorrak arautzen ditu, eta, ondorioz, arazo batzuk konpontzea eta herritarren eskaera asetzea bermatzen du, eragiketa juridiko eta sozial egoki batean.



II. ERANSKINA. ORDENANTZAREN HASIERAKO ZIRRIBORROA

ANOETAN HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA

AURKIBIDEA:

Atarikoa²

I.kapitulua. Xedea

II. kapitulua. Baimena

III. kapitulua. Prozedura hastea

IV. kapitulua. Prozeduraren instrukzioa egitea

V. kapitulua. Arau orokorrak

VI. kapitulua. Eskubideak eta betebeharra

Xedapen gehigarria

Azken xedapena





ANOETAN HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA

ATARIKOA

Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen.

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Anoetako Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Ordenantza honen helburua, beraz, Anoetako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

I.KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea hileta edo omenaldi zibilak egiteko Udalak artikulua honetako hurrengo pasarteetan zehaztutako guneen erabilera eta baimena arautzea da.

Horretarako Udalak Herriko plazako estalpea eta Lasarbe aretoa egokituko ditu.



Ordenantza honetan ezarri gabeko toki publikoren batean burutu nahiko balitz omenaldia eskaeran zehaztu beharko litzateke eta Alkateak edo hori ordezkaturako duen zinegotziak erabakiko du baimena eman ala ez.

II. KAPITULUA. BAIMENA

2. artikulua.

Alkateari edo hori ordezkaturako duen zinegotziari dagokio hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako espazioaren erabilera baimentzea. Horretarako senitartekoak edo dagokionak Anoetako Udaleko erregistroan eskaera, ordenantza honetako 5. artikuluan zehazten diren agiriekin batera, aurkeztu beharko du.

Hileta edo omenaldi zibila edozein pertsonaren aldekoa izan daiteke, Anoetan erroldatuta egon ala ez heriotzaren unean.

III. KAPITULUA. PROZEDURA HASTEA

3. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Anoetako Udaleko Alkatetzara zuzenduko dira, eta urriaren 1eko 39/20215 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutako edozein bide erabili ahal izango da horretarako.

4. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaeren izapideak egoera horrek beharrezkoa duen berehalakotasun printzipioaren arabera arautuko dira, eta horretarako Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak egoki iriztitako neurriak hartu ahal izango ditu.

5. artikulua.

Eskaerak derrigorrez Udalak prestatutako inprimakietan egin beharko dira eta bertan zehaztu zein material erabiltzea eskatzen den. Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Heriotza ziurtagiria.
- Tasa ordaindu izanaren agiria, ordenantza fiskaletan aurrez ordaindu behar dela finkatu bada.

6. artikulua.

Eskaerak aurreko artikulua zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, eskaera egin duen pertsonari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko.

IV. KAPITULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

7. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak udalak aurreikusitako lekuren batean ospatzeko eskaera 5. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin aurkeztu bada, automatikoki onartuta ulertuko da. Baldintza hori betetzen duen pertsona bat baino gehiagoren hileta edo omenaldia balego, lehenengo egindako eskaeran jasotako ordutegia kontuan izanda, hurrengo eskaera egiten duenak ordutegia moldatu beharko du.

Gainontzeko kasutan hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna eta ordua Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak zehaztuko du, Idazkaritzak xede horrekin espediente bideratu ondoren.

Udalak, ahal duen neurrian, eskaeran zehaztutako eguna eta ordua errespetatuko ditu, eta eskaerak Erregistro Orokorrean aurkeztu diren ordena hartuko da kontuan horretarako.

Instrukzioa eskaerak aurkeztu diren ordena zorrotzean egingo da.

V. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

8. artikulua.

Ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak zehaztutako eskaera errespetatuko da, baina aparteko eta presazko beharrizan objektibo baten ondorioz, gerta daiteke eskatutakoa ez onartzea.

9. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera ospatuko dira, eta Udalak gehienez eskaera-orrian jartzen diren baliabideak jarriko ditu.

10. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibila ospatzeko ordutegia ondokoa izango da: Aste osoan zehar arratsaldeko 17:00etatik 19:30era eta igandeetan eta jai-egunetan arratsaldeez gain 12:00etatik 13:30era.

Zeremoniak, gehienez, ordu bat iraungo du eta gunea libre geratu beharko da gehienez ere hurrengo ordu erdian.

Beste ordu batean egiteko eskaera aurkezten denean, eskaera ikusita eta egun horretan dauden ekitaldiak kontuan izanda, erabakiko da.

III. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua.

Udal gunearen zainketa egokia bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berorietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo, eta udalak lagatako materialari erabilera zuzena eman beharko diote. Udalak egoki iritziz gero fidantza bat eskatu ahal izango du.



12. artikulua.

Hildakoaren senitartekoek edo adiskideek Anoetako udalak prestatutako gunea apaindu nahi badute edo modu bereziren batean egokitu nahi badute, egin ahal izango dute baina ekitaldirako erreserbatutako denbora hori amaitu eta hurrengo ordu erdian erretiratu egin beharko dute jarritakoa. Erabat debekatuta geratzen da zoruan, paretetan edo beste edozein elementutan anklajerik, zulorik edo antzekorik egitea, eta udal argindar instalazioetara inolako engantxerik egitea.

13. artikulua.

Eskaera egiten duen pertsonak lehenengo artikuluan jasotako lekuak baino beste espazio publiko bat erabili nahi badu, eskaeran hori ere zehaztu beharko du eta Udalak egoki iritzitako erabakia hartuko du.

14. artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderditarako, udal arduradunen aginduak hartuko dira kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Anoetako Udaleko Alkatetzari ordenantza hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa guztiak egiteko ahalmena ematen zaio.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeii egunetara jarriko da indarrean, eta Udalbatzak berau aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean.